



*Kultura, Kirola, Gazteria eta Euskara
Cultura, Deporte, Juventud y Euskera*



MUSKIZKO XXXVII. AZOKA

(2019ko irailaren 15ean)

Azoka 10:00etan zabaltzen da.

Goizeko 9:00etarako okupatu gabe dauden postuak, beste saltzaileen artean banatu ahal izango dira.

Goizeko 9:30etatik aurrera inolako ibilgailurik ezingo da egon Azoka gunean.

IZENA EMATEA:

Muskizko Kultur Etxean (94 670 70 75)
Irailaren 2tik 6ra, 10:00etatik 13:00era.

Agiriak aurkezteko:

- Muskizko Kultur Etxean (Cendeja kalea, 29-3. solairua)
- Edo posta elektronikoz, kultura@muskiz.com helbidera.

NEKAZARITZA ARLOA

(Fruta eta barazkiak, ogia eta pastela, eztia, gazta, hestebeteak eta txakolina)

Aurkeztu beharreko agirien kopiak:

- ✓ NANA
- ✓ Titularraren Osasun-erregistroa
- ✓ Nekazaritza Ustiategiaren Txartela
- ✓ Ekonomia Jardueren gaineko Zerga
- ✓ Elikagaien manipulatzaile agiria (beharrezkoa balitz)

NEKAZARITZA ARLOKO BALDINTZA OROKORRAK

Osasun Erregistroa: Elikagai guztiek, frutek eta barazkiek izan ezik, etiketa izan behar dute, eta derrigorrez, Elikagaigintzako Enpresen eta Elikagaien Osasun Erregistro Orokorrean izena emanda dauden enpresetatik eratorriak izan behar dira.

Salneurriak: Salgai dauden produktuen salneurriak ikusgai izan behar dira.

Saltokiaren arduraduna: Ikusgai egon behar dira bere izena eta helbidea.

JAKI BAKOITZAREN BALDINTZAK

Ogia eta pastelak banan-banan bilduta saldu beharko dira.

Bilgarrian, enpresaren izena eta helbidea agertu beharko dira, gutxienez.

Eztia: Lehentasuna izango dute eskualdeko ekoizleek eta Eusko Jaurlaritzako Eusko Labela dutenek.

Gazta eta esnekiak: Ardi gaztak Idiazabal jatorrizko deitura izan behar du.

Lehentasuna izango dute bertoko edo eskualdeko produktuek.

Zatika saldu daitezke, baina bezeroek beti izan behar dute etiketa eskuragarri.

Derrigorrez hozte sistema erabili behar da gazta freskoekin, jogurtekin eta etiketan halakorik behar dela adierazten duten produktuekin.

Hestebeteak etiketa jarrita eta beira arasa edo antzeko ez estalita egon behar dira. Hestebete bakoitza oso-osorik saldu beharko da.

Ezinbestekoa da hozte sistemak erabiltzea odolosteekin edota halakorik behar dutenekin.

Arrautzak: Bilgarrian jatorriari buruzko informazioa eta Osasun Erregistroa agertu beharko dira. Debekatuta dago ontziak berrerabiltzea.

Txakolina: Bizkaiko Txakolina jatorrizko deitura izan behar dute.

Atal honetan lehiaketa ospatuko da eta parte hartzeko, aurkeztutako mota bakoitzeko 30 botila jarri behar dira salgai, gutxienez.

SARIAK:

Txakolin zurian Txakolin Sari Nagusia eta 6 botilaren ordainetan, 350€

Txakolin beltza eta oilar begia motetan Garaikurra + 100€

ZALDIEN LEHIAKETA

Dokumentazioa: TXARTEL BERDEA aurkeztu behar da, bertan agertu behar direlarik:
Txartel Berdea, Azoka egunean ere ekarri beharko da.

Garraioan edo egonaldian, abereek jasan dezaketen kalteen arduraduna, jabea bera izango da, beti ere, antolakuntzaren ardura ez balitz.

ZALDIEN LEHIAKETAKO INFORMAZIO OROKORRA

Dietak:50€ abere heldu bakoitzeko; 35€, lehiatzeko sasoiko moxal bakoitzeko.

Sariak jasotzea:

Derrigorrez saritutako zaldiarekin joan behar da sari bila, ahal izanez gero, zaldi gainean. Abereak ezin dira azokatik atera, sariak banatu arte.

Beste baldintza batzuk:

Abereak 10etarako egon beharko dira Azokan. Ordu horretatik aurrera ez dira onartuko lehiaketan. Okelarako animaliak, bultzatzekoak, pottokak, poniak eta abarrak aurkeztu daitezke erakusketarako, baina ezin dira lehiatu eta ez daukate dietarik.

Bi urte bete ez dituzten moxalak ezin dira lehiatu, ezta dietarik jaso.

Jabe bakoitzak, gehienez, bi abere aurkeztu ditzake (txartelego titularra).

Izen-emate kopurua gehienez: 40 (izena emateko hurrenkeran).

ARRAZA GURUTZATUAK: Meatzaldekoentzat bakarrik.

Arrak zikiratuak edo zikiratu gabeak izan daitezke.

Maila orokorreko sariak:

*2 eta 3 urteko moxalak: 1. saria, 60€ eta garaikurra.

*Behor gazteak (4, 5 eta 6 urte): 1. saria, 100€ eta garaikurra.

*Zaldi gazteak (4, 5 eta 6 urte): 1. saria, 100€ eta garaikurra.

*Behor helduak (6 urtetik aurrera): 1. saria, 100€ eta garaikurra.

*Zaldi helduak (6 urtetik aurrera): 1. saria, 100€ eta garaikurra.

Maila lokaleko sariak:

Muskizko jabeak dituzten animaliek parte hartu ahal dute.

Maila orokorreko animalia sarituek ezin dute maila lokaleko saririk jaso.

*2 eta 3 urteko moxalak: 1. saria, 40€ eta garaikurra.

*Behor eta zaldi gazteak (4, 5 eta 6 urte): 1. saria, 60€ eta garaikurra.

*Behor helduak (6 urtetik aurrera): 1. saria, 60€ eta garaikurra.

*Zaldi helduak (6 urtetik aurrera): 1. saria, 60€ eta garaikurra.

ARRAZA GARBIAK: Muskizko jabeentzat bakarrik.

Sariak:

*2/3 urteko moxalak: 1. saria, 50€ eta garaikurra (bakarra).

*4 urtetik aurrerako behor eta zaldia: 1. sariak, 75€ eta garaikurra.

Aipamen bereziak:

Epaileak, gehienez, garaikurra eta 30€-ko aparteko sari bi eman ditzake, beste saririk jaso ez duten animalien artean, bere ustez halakorik merezi izango balute.

BERTOKO ABEREEN ERAKUSKETA

Ustiaketa edo/eta jabeak **Muskizen erroldatuta** egon behar dira.

Izena ematerakoan, animaliek **kanpaina igarota** izan behar dute.

Erakutsiko dituzun animalien **belarrietako zenbakiak** eman behar dituzu.

Garraioan edo egonaldian, abereek jasan dezaketen kalteen arduraduna, jabea bera izango da, beti ere, antolakuntzaren ardura ez balitz.

Behiak: Arraza garbikoak soilik.

Behien jabeek, (haragi zein esnekoak) gehienez 6 abelburu aurkeztu ditzakete.

(Bi txahalek izen-emate bat osatzen dute).

Lote oso bakoitzeko dieta 900€'koa da eta osorik ez balego, abere bakoitzeko 150€'koa.

Izen emate kopurua mugatua da.

Ardiak: Hemen 3 atal dauzkagu: arkaztak, ardiak eta arkumeak.

Lote bakoitzean, 5 + ar bat. Lote oso (5+1) bakoitzeko dieta 120€'koa da.

Abeltzain bakoitzak lote bana ekar dezake atal bakoitzeko.

Bestelako animaliak onartu daitezke erakusketarako, Antolakundeari interesgarriak irudituz gero.